



Herritar hori:

Honakoaren bitartez, seguruenik dagoneko aditzea izango zenuen herri-bidean igogailuak jartzeko proiektuaren berri ematera natorkizu.

Udal hau aspaldi ari da irisgarritasun-politiken alde apustu egiten, udalerriko auzo ezberdinen artean pertsonen mugikortasuna errazteko. Badira urte batzuk horretan hasi ginela arrapala eta eskailera mekanikoak jarritz, eta orain herriko alderdirik altuenetara iristeko eragozpenei konponbidea emango dieten osagai berriak jartzeko unea iritsi da: herri bidean igogailuak jartzeaz ari naiz.

Lehenengo jarriko ditugunak San Pelaio Aldapa kalearekin lotuko dute, eta berori Ongarai auzoarekin.

Uste dut, zuen eraikinaren kokalekua kontutan hartuta, zuek guztiok igogailu hauen erabiltzaile izan zaitezketela, Ongaraiko ikastetxeetara eta Beti Ondoko kirol-gunera errazago joan ahal izango zaretelako, eta Ongarain bizi zaretenok, asko hurbilduko zaituztetelako herriaren erdigunera.

Horregatik, proiektu honen berri xehatua eman ahal izateko, aurkezpen-hitzaldi bat antolatu dugu **irailaren 15ean (asteartea), arratsaldeko 19:00etan Lobiano Kultur Guneko entzunaretoan.**

Etortzera animatzen zaitut eta gonbidapen hau zure erkidegoko bizilagunei ere helarazteko eskatzen dizut, ziur dakit-eta emango dizuedan informazioa oso interesgarria izango dena zuentzat guztiontzat.

Bertan izango zaretelakoan, agur bero bat.

Ermuan, 2015eko irailaren 9an

ALKATEAK

Sin.: Carlos Totorika Izagirre

Jabe-Erkidegoaren presidentea